



2021-2024

Jarduketa-plana

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen
Institutuko Zuzendaritza Kontseilua

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Aurkibidea

SARRERA	7
LEHEN ZATIA 2017-2020 aldiko planaren ebaluazioa	
1. Barne-ebaluazioa	10
I. ardatza: Zeharkako proiektuak	10
II. ardatza: Memoria Historikoari buruzko proiektuak	11
III. ardatza: Oraintsuko Memoriari buruzko proiektuak	12
2. Kanpo-ebaluazioa	13
3. Ondorioak	14
BIGARREN ZATIA Planaren orientazioa eta ildo estrategikoak	
1. Orientazioa	16
2. Zeharkako proiektuen ildo estrategikoak eta helburuak	16
3. Memoria historikoko proiektuen ildo estrategikoak eta helburuak	17
4. Oraintsuko memoriari buruzko proiektuen ildo estrategikoak eta helburuak	18
4.1. Ildo estrategikoak	18
4.2. Oraintsuko memoriaren helburu espezifikoak	19
HIRUGARREN ZATIA Jarduketa-programa	
I. ardatza: Zeharkako proiektuak	22
1-3 ekimenak	
II. ardatza: Memoria historikoari buruzko proiektuak	28
4-6 ekimenak	
III. ardatza: Oraintsuko memoriari buruzko proiektuak	34
7-9 ekimenak	
IV. ardatza: Proiektu operatiboak	40
10. ekimena	



Sarrera

Gogora institutuaren 2021-2024 aldirako Jarduketa Plan honek aurreko 2017-2020 aldirako Planean aurreikusitako eta garatutako lan-ildoak indartu eta sakontzen ditu. Aldi berean, zenbait ekimen berri txertatu dira, institutuak sortze-xedea eta helburuak bete ahal izan ditzan. Horiekin bat etorritz, Plana «memoria historikoa» (1936-1960) eta «oraintsuko memoria» (1960-2011) deitzen kontzeptuei eta aldi historikoei aplikatuz gauzatuko da.

Gogorak bere printzipioen adierazpenari eusten dio; memoria kritiko, ireki, inklusibo, empatico eta etikoaren eraikuntzan lidergoa izatea eta ekarpena egitea, betiere oinarritzat hartuta biktimen memoria –eskubide-urraketen biktima guztiena– eta bake, askatasun, demokrazia eta giza eskubideen defentsa eta sustapenarekiko konpromiso zibiko eta sozialaren memoria. Era berean, Gogorak memoriaren arloko gainerako erakunde, institutu eta zentroekin eta erakunde memorialistekin elkarlanean aritzeko eta sarean lan egiteko bokazioari eusten dio.

Planaren xede den aldian, Gogorak bere lau jarduketa-ardatz egituratzaileak garatzen jarraituko du: gogoeta eta eztabaida, ikerketa, memoria-arloko prestakuntza eta pedagogia, eta sensibilizazioa. Ildo horietan, honako alderdi hauekin lotutako zenbait lan-ildo jasotzen dira: hobien mapa, DNA bankua, Elgoibarko kolunbarioa eta Urduñako kolunbario berria, Erorien Haranean hilobiratutako euskal herritarren desobiratzeak, lekukotza eta grabaketa berriak, Herenegun unitate didaktikoa garatzea eta biktimen lekukotzen programa, laguntzen deialdiak, Memoria-ren Eguna, ekitaldiak, jardunaldiak, erakusketak, urteurrenak, gazteak eta memoria, Nafarroako Gobernuarekin, Memoria Historikoko Estatu Idazkaritzarekin, EITBrekin, Aranzadirekin eta besteekin egindako lankidetzak-hitzarmenak, eta abar.

Izaera arrunt eta iraunkorreko dinamika horrekin batera, 2021-2024 laurtekoan irismen bereziko honako ekimen hauek egitea aurreikusten da:

- Euskadiko Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legea onartzea. Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, lege horren aurreproiektua Legebiltzarrean eztabaidatuko da 2021-2022ko bilkuraldian. Legeak arau-esparru bat emango die Euskadiko memoria-arloko politika publikoei.
- Gerra Zibileko biktimen datu-basea garatzea eta proiektuaren fase berri bat abian jartzea, frankismoaren hastapenetan espetxeratutako euskal herritarrei buruzko datu-base bati buruzkoa.
- Gogoraren erakusketa-espazioa sortzea Maria Diaz Haroko kalean duen egoitzako patioan, Martxoak 3 memoria gunea sortzea –Gasteizko Udalarekin, Arabako Foru Aldundiarekin, Gasteizko Apezpikutzarekin eta Memoria Gara gizarte-ekimenarekin elkarlanean– eta Gerni-

kako Museoa berritzea –Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Gernikako Udalarekin elkarlanean–. Izan ere, zentro horiek biktimen zentraltasunetik eratzten dira, gune bizi izateko, eta xede honekin: bizikidetzarako memoria.

- Hausnarketa- eta eztabaida-prozesu bat sustatzea, etorkizunera begira memoria partekatu bat eraikitzeke oinarriak ezarri ahal izateko.

Lan-ildo iraunkorrak eta horiekin lotutako ekintzak garatuz eta Planaren xede den aldiko ekimen espezifiko horiek betez, aurrerapen nabarmena egingo dugu Gogora Institutuaren misioan, hau da, egiarako eskubidea benetan gauzatzea eta guztion memoria eraikitzen laguntzea; bizikidetzarako memoria bat.

Lehen zatia
2017-2020
Jarduketa Planaren
ebaluazioa



1. Barne ebaluazioa

Puntu honetan, 2017-2020 Jarduketa Planean aurreikusitako proiektuen betetze-mailari buruzko balantzea egingo dugu. Ebaluazioaren xede den aldiak aurreko legegintzaldia hartzen du —hain justu, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sendotzeko aldia—. Kontuan hartu behar da, halaber, pandemiak markaturik egon dela aldi horri dagokion azken urtea eta, hori dela medio, atzeratu egin direla legegintzaldi amaierarako aurreikusitako zenbait proiektu.

Jarduketa Plana hiru multzotan egituratu zen, eta horiexek aztertuko ditugu ebaluazio honetan ere. Hemen eskema modura aurkezten den balantzea 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren barnean sortutako dokumentuen bilduman dago xeheago zehaztuta —memoriari buruzko 4. liburukian, hain zuzen—. Bilduma horretan, Gogora institutuak argitaratutako dokumentuez gainera, institutu horrek berak oraintsuko memoriaren arloan egindako jarduketan laburpen xehatua ere jasotzen da.

I. ardatza: Zeharkako proiektuak

Proiektua	Aurreikusitako jarduketa	Betetze-mailari buruzko balantzea
KUDEAKETA 1. ekimena. Memoriaren alorreko erakundeen sinergia eta osagarritasuna	Euskadiko eta Euskaditik kanpoko beste memoria-erakunde batzuekin koordinaturik eta haiekin lankidetzan jardutea.	Gernika 1937 Bakearen Museoarekin harreman koordinatua egituratu da; haren estatutuak aldatu dira, baina oraindik berritzeke dago museoa, egungo egitekorra egokitu dadin. Elkarlanerako bide jarraituak ezarri dira Memoria Historikoaren Estatuko Idazkaritzarekin. Nazioarteko memoria-erakundeei dagokienez, esperientzia-truke bat zegoen aurreikusita garai batean ESMA izandako memoria-zentroarekin 2019ko urriko jardunaldietan. Pandemiaren ondorioz, geratu egin da ekimen hori.
IKERKETA 2. ekimena. Gogora institutuaren ikerketa- eta artxibo-tresnak sortzea	Azken urteetan sortutako informazioa eta dokumentazioa zentralizatzea eta memoriari buruzko ikerketa berriak lehenestea, sustatzea eta koordinatzea.	Gogora institutuak memoriari buruzko ikerketak eta datu-baseak bildu eta antolatu ditu. Gogorak memoria historikoari buruzko ikerketa berriak sustatu ditu, eta senideen eta gizarte osoaren eskura ipini dira. Etengabeko koordinazio- eta aholkularitza-harremana izaten du Euskadiko udalekin. Harreman jori horretan, informazioa partekatzeaz gainera Euskadiko memoria historikoaren elkarteen proiektuak finantzatzen dira.
DIBULGAZIOA 3. ekimena. Gogora institutuaren dibulgazio-lana garatzeko baliabideak sortzea	Herritarren eskura ipintzea dokumentazio-zentro bat, erreferentzia-liburutegi bat eta memoriaren edukiei buruzko bideoteka bat. Gogora institutuaren erakusketa-proiektua garatzea.	Dokumentazio-zentroa eta liburutegia finkatu eta ezagutarazi dira, herritar guztientzako zerbitzu publiko izan daitezten. Biktimen testigantzak eta ikus-entzunezko edukiak ipini dira jendaurrean, bai Memoria Plaza erakusketa ibiltarian, bai Gogora institutuaren egoitzan. Zuzendaritza Kontseiluak Gogoraren erakusketa-proiektua definitzeko oinarriak dokumentua onetsi du. Ezin izan da gauzatu egitasmo hori, 2020an pandemiak eragindako atzerapenaren ondorioz.

II. ardatza: Memoria historikoari buruzko proiektuak

Proiektua	Aurreikusitako jarduketa	Betetze-mailari buruzko balantzea
<p>KUDEAKETA</p> <p>4. ekimena. Memoria historikoaren inguruko elkarlana Euskadiko erakundeekin</p>	<p>Memoria historikoaren arloko EAEko erakundeen politikak eta dirulaguntza-programak koordinatzea.</p> <p>Sinbologia frankista kentzen amaitzea</p> <p>Identifikatu gabeko gorpuzkiak Elgoibarko Kolunbarioan lurperatzea</p>	<p>Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan hasi da Institutua, arlo horretako memoria-politikak eta dirulaguntzak koordinatzeko.</p> <p>2019ko urrian, Euskadin sinbologia frankista kentzeari buruzko behin betiko txostena aurkeztu zen, EAEko udalerriekin lankidetzan.</p> <p>Elgoibarko Kolunbarioan lurperatu dira berriz hobietatik ateratako gorpuzki guztiak. Orotara, 58 pertsonaren gorpuzkiak lurperatu dituzte Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan.</p>
<p>IKERKETA</p> <p>5. ekimena. Memoria historikoaren egitari ekarpena egitea</p>	<p>Gerra Zibilean desagertutako pertsonen gorpuzkiak berreskuratzea eta identifikatzea.</p> <p>Gerra Zibileko eta frankismoko gertakari historikoak ikertzea eta argitzea, batik bat giza eskubideen urraketen ingurukoak.</p> <p>Udal-esparruan memoria historikoa berreskuratzen laguntzea.</p>	<p>Amaitu da Euskadin gorpuzkiak hobietatik ateratzeko prozesua, eta balantze hau argitaratu da 2021eko otsailean: <i>Gerra Zibileko desobiratzeak Euskadin</i>.</p> <p>Cuelgamuros haranean ehortzitako euskal herritarrei buruzko ikerketa bat egin da, eta, 2019ko urrian, <i>«Erorien Haranera Euskaditik eramandakoei eta beste erkidegoetatik lekualdatutako euskal herritarrei buruzko txostena»</i> argitaratu zen.</p> <p>Halaber, amaitu da Gerra Zibilean eta frankismoan izandako giza eskubideen urraketei buruzko oinarriko txostenaren lehen fasea, eta <i>Euskadin Gerra Zibilean hildakoen datu-basea</i> izeneko txostena argitaratu da webgunean, 2021eko otsailean.</p> <p>Gerra Zibilean desagertutakoen senitartekoei DNA laginak hartu zaizkie (352 senide orotara, 2017 eta 2020 artean).</p> <p>Banakako erantzuna eman zaie Gogora institutuaren aholkularitza eta informazioa eskatu duten Gerra Zibileko biktimen senide guztiei. Biktimen senideek gero eta gehiago eskatzen dute zerbitzu hori. Aipatzekoa da Erorien Haranean hobiratutako pertsonen senitartekoein izaniko lankidetzak.</p> <p>2020ko maiatzean, ikerlan bat plazaratu da nazien eremuetara deportaturiko euskal herritarrei buruz: <i>Euskaldunen deportazioa Hirugarren Reicheko esparruetara (1940-1945)</i>.</p> <p>Mantendu edota areagotu egin dira udalei eta elkartei memoria historikoa berreskuratzeke proiektuetarako ematen zaizkien dirulaguntzak, bai ikerketarako emantxoak, bai dibulgaziora bideratuak.</p>

Proiektua	Aurreikusitako jarduketa	Betetze-mailari buruzko balantzea
<p>DIBULGAZIOA</p> <p>6. ekimena. Memoria historikoaren egia eta frankismoaren biktimen erreparazioa aintzatestea eta zabaltzea.</p>	<p>Gerra Zibilaren memoriaren espazio eta leku nagusiak identifikatzea.</p> <p>Memoria historikoaren egiaren aitorten instituzionalaren prozesua eta Gerra Zibileko biktimen erreparazio morala amaitzen laguntzea.</p>	<p>Bilboko Burdin Hesia berreskuratzea eta balioestea bultzatu da, udalekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan.</p> <p>Udalen bidez memoriaren ibilbideak berreskuratzeko proiektuak finantzatu dira.</p> <p>Gerra Zibilaren eta erbestealdiaren 80. urteurrena dela eta, oroimen- eta aitorten-ekitaldi ugari egin dira. Azpimarratzekoa da, horien artean, Lehendakariak Erbestean izeneko ekitaldia —Gernikan izan zen, 2019ko abenduaren 15ean—.</p> <p>Memoria historikoari loturiko dibulgazio-jarduketak antolatu dira, hala nola mahai-inguruak, jardunaldiak eta udako ikastaroak, EHUrekin, CSICekin eta halako beste erakunde batzuekin lankidetzan.</p> <p>CSICekin batera, Euskadiko memoria-politika publikoak balioesteko txosten bat egin da: <i>Euskadiko memoria historikoaren politika publikoen balorazio konparatua (2000-2018)</i>.</p> <p>Dibulgazio-xedeko aldi baterako erakusketak antolatu dira, dela erakundeak berak ekoitzita, dela beste erakunde batzuekin elkarlanean antolatuta.</p> <p>Pandemia dela eta, ezin izan da egin Gerra Zibilaren eta frankismoaren biktimak aitortzeko eta erreparatzeko ekitaldia.</p> <p>Euskadiko memoria historiko eta demokratikoari buruzko Legearen aurreproiektua idatzi da, eta 2021ean helaraziko zaio Eusko Legebiltzarrari.</p>

III. ardatza: Oraintsuko memoriari buruzko proiektuak

Proiektua	Aurreikusitako jarduketa	Betetze-mailari buruzko balantzea
<p>KUDEAKETA</p> <p>7. ekimena. Oraintsuko memoriaren inguruko elkarlana Euskadiko erakundeekin</p>	<p>Memoriaren Egunaren ospakizuna ahalik eta erakunde gehienetara zabaltzea, herritarren parte-hartzea bultzatuz.</p> <p>Oraintsuko memoriari buruzko hausnarketa kritikoa sustatzea, udalekin, elkarteekin eta hezkuntza-esparruarekin lankidetzan.</p>	<p>Legegintzaldiko lehen urteetan, elkarrizketa eta hausnarketa kritikoa sustatzeko ekitaldiak egin dira Memoriaren Egunaren esparruan, hezkuntza-alorrarekin eta udalekin lankidetzan. Nabarmentzekoa da 2018ko edizioa, Deustuko Unibertsitatearekin batera antolatua.</p> <p>2019an ez zen egin ekitaldirik, hauteskundeak izan baitziren urte hartan.</p> <p>2020ko edizioan, «gazteak eta memoria» izan da gai nagusia, baina ezin izan ziren gauzatu jarduketak normaltasunez, pandemia dela eta.</p>

Proiektua	Aurreikusitako jarduketa	Betetze-mailari buruzko balantzea
IKERKETA 8. ekimena. Memoriari buruzko ikus-entzunezko funts publiko bat sortzea	Biktimen eta gizartearen memoria plurala jasoko duen ikus-entzunezko funts dokumental bat sortzea, erreferentzia gisa baliatzeko.	Indarkeriaren eta terrorismoaren biktimen lekukotzak grabatzen jarraitu da. Biktimen senitartekoez gainera, mehatxatutako pertsonen testigantzak jasotzen hasi dira. Euskadiko mugimendu bakezaleei buruzko dokumental bat egin da, eta mugimendu haietan parte hartu zuten pertsonen testigantzak bildu dira. Mantendu eta areagotu egin da memoriari buruzko dokumentalak eta liburuak diruz laguntzeko deialdia.
DIBULGAZIOA 9. ekimena. Memoriaren hezkuntza-ekarpenak	Hezkuntza-tresnak eskaintzea, memoriaren gaitasun didaktikoa dimentsio historiko eta etikoaren ikuspegitik sustatzeko.	«Herenegun» izeneko hezkuntza-proposamena prestatu eta aurkeztu zen 2018ko urrian. Parte hartzeko eta ekarpenak jasotzeko prozesu bat ireki zen, eta adostasun-maila handiarekin amaitu zen. Pandemiaren ondorioz, atzeratu egin dira martxan jartzeko eta pilotatzeko lanak, 2020rako aurreikusita baitzeuden. Lankidetzeta eta edukiak eskaintzen jarraitzen da hala eskatzen duten ikastetxeei.

2. Kanpo ebaluazioa

Roberto Toscano, Covadonga Morales, Jesús A. Núñez eta Francisco Rey adituei eskatu zitzaizkien Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Plan osoaren kanpo-ebaluazioa. Gogora institutuaren memoriari buruzko politikak ere ebaluatu zituzten. 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren baitan sortutako dokumentuen bildumaren 1. liburukian dago jasota txostena osorik. Atal horretan, Gogora institutuaren ebaluazioari buruzko laburpenak biltzen dira.

«Gogora institutua abian jartzea, ahozko testigantzan espezializatzeko eta EAEko kasuan erreferentziako biblioteca gisa eratzeko duen helburu aitortuarekin, eta 2017-2020 aldirako Plan Estrategikoa garatzeko duen aktibismo nabarmenarekin, bere jardunaren norabidea printzipio etiko ukaezinetan oinarrituta mantentzeko Planean egiten den ahaleginaren froga ona da. Printzipio horiek giza eskubideen defentsa edozein kontsiderazio alderdikoiren gainez jartzen dute. I. eranskinean (5. ekimena) xehetasunez jasotzen diren jarduketaren bolumen handia izateaz gain, eta Memoria Historikoaren Legearen aurreproiekturako zirriborroa 2019ko irailean onartzea lortu izateaz gain, nabarmentzekoa da EAEko museo-egitura berrantolatzeko etengabeko ahalegina egin duela, nahiz eta aurrerapenak ez diren berdinak izan orain arte.

. Lehenengo jarduketa-etapa honetan lortutako emaitzen arabera, ondorioztatu behar da plaza publikoa irabaztea eta eragile politiko eta sozialen artean konfiantza-maila bat sortzea lortu dela. Errealitate hori ezinezkoa izango zen Idazkaritzaren eta Gogoraren lana gainerako aktore politikoaren aldetik aintzatetsi gabe eta aurreko jarduketek sortutako konfiantza aitortu gabe. Indar politikoek protagonismo handiagoa duten beste esparru batzuetan ez bezala, oso nabarmena izan da adostasunak sortzeko haien gaitasuna. Izan ere, horiei esker gauzatu ahal izan dira argitzearen eta memoria kolektiboaren aldeko jarduketaren kopuru handi hori».

3. Ondorioak

Lau urteko lehen planaren garapenak betetze-maila ona izan du. Nabarmentzekoa da, batez ere, jarduketetan izaniko aniztasuna, eta halaxe lortu du bere helburu nagusietako bat betetzea: adostasun plurala lortzea gure herriaren memoriaren eraikuntzan. Gainera, egindako ekimenek parte-hartze sozial handia izan dute, eta, hala, Institutuaren erronka nagusietako erronka nagusietako bat bete da. Ikerketa-jarduketa trinkoari esker, informazio garrantzitsua ipini da oro har herritarren eskura, eta, batez ere, biktimen eta familien eskura. Hori lagungarri izan da iragana argitzeko eta pertsona askoren duintasuna eta memoria berreskuratzeko. Hori guztia kontuan harturik, esan daiteke Gogora institutua erreferente garbia dela gaur egun Euskadiko memoria-politiken arloan.

Proiektu guztiak oinarri etikotik eta giza eskubideen funtsetik garatu dira. Hori horrela, Gogora institutuak bizikidetza demokratiko eta inklusiboa lortzera bideratu du memoriaren arloko politika publikoa, indarkeria motak berdintzeko joerak baztertuz eta horietako bakoitzaren gaineko bazterketarik eta diskriminaziorik gabeko gogoeta etiko eta espezifikoa sustatuz.

Nolanahi ere, ezin dira balantze honetatik kanpo geratu ezarritako epeetan amaitu ezin izan diren jarduketak —pandemiak azken urtean eragin duen atzerapena dela medio—; esate baterako, Gogora institutuaren erakusketa-espazioa garatzea, Gogora nazioartean zabaltzea edo Herenegun hezkuntza-proiektua abian jartzea. Horiek guztiek aurrera jarraitzen dute, eta egitasmo garrantzitsu izango dira 2021-2024 Jarduketa Planean, jarraian aurkezten diren eta planean bildurik dauden proiektu berriez gainera.

Bigarren zatia
Planaren
orientazioa eta ildo
estrategikoak



1. Orientazioa

Gogora sortzeko Legean eta 2017-2020 aldirako Jarduketa Planean daude jasota Institutuaren abiapuntuak, oinarriak eta printzipioak, eta, logikoa denez, horiek berek arautuko dute 2021-2024 aldirako Jarduketa Plana ere.

Ildo horretan, eta 2021-2024 aldirako Jarduketa Planaren orientazioari dagokionez, aurrekoan jasotako jarraibideak eta lehentasun estrategikoak izango ditu; burura ekarriko ditugu, bada:

Irizpide gidaria Memorien gaineko elkarrizketa aske eta plural honen kudeaketak muga bakarra du: ezin da erabili ez baztertzeko, ez gertaerak alderatzeko. Ezta gerra, totalitarismoa, terrorismoa edo inolako indarkeria-modu edo giza eskubideen urraketa legitimatuko duen historia berridazteko ere. Alderantziz, urraketa haien salaketarik sendoena da, giza duintasunaren goreneko balioari begira egiten delako, baita horren ondorio diren eskubideei eta askatasunei begira ere.

Lehentasun estrategikoak: aurreko orrialdeetan adierazitako oinarri zehatzak ebaluatu eta identifikatzean, Gogora Institutuak bi lehentasun estrategiko nagusi dauzka datozen lau urteetarako: adostasuna eta sozializazioa.

- **Adostasuna.** Gure gizarteko sentsibilitate politiko ezberdinen arteko adostasun plural ahalik eta zabalena eduki eta indartzea, memoriaren politika publikoak garatzeko orduan. Helburu hori bereziki garrantzitsua da 2021-2024 aldirako Jarduera Plan honetan; izan ere, lehentasunezko helburuen artean dago Zuzendaritza Kontseiluan gure herrialdearen Oraintsuko Memoriari buruz ordezkaturik dauden sentsibilitate politikoek oinarri partekatuak adostea.
- **Sozializazioa.** Gogora Institutua kalera eta herritarrengana memoriaren balio zehatz eta benetakoa hurbiltzeko erreferentziatzeko espazioa bihur dadin lortzea, horretarako bere gaitasun etiko eta hezitzailea sustatuz eta elkarrizketa, eztabaida eta gizarte-partaidetza bultzatuz.

2. Zeharkako proiektuen ildo estrategikoak eta helburuak

Gogora Institutuak bere kudeaketa-, ikerketa- eta dibulgazio-azpiegitura nagusiak finkatzen jarraituko du. Barne-antolaketa irmoturik dago sei urteko ibilbidearen ondoren. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da Euskadiko memoria historiko eta demokratikoari buruzko Lege berria onartzeak eginkizun berriak esleituko dizkiola Institutuari, eta, ondorioz, haren egitura indartu beharko da, erronka berriei egokiro erantzuteko.

Gogora institutuaren zeharkako proiektuen esparruan, eta horiek egituratzen dituzten hiru kapituluak kontuan hartuta (kudeaketa, ikerketa eta dibulgazioa), hona hemen horietako bakoitzari planean dagozkion helburu espezifikoak:

Kudeaketaren alorrean: Gogora institutuaren zeregin nagusietako bat memoriari buruzko politika publikoak koordinatzea izango da, Euskadiko eta Euskaditik kanpoko beste memoria-erakunde eta erakunde publiko batzuekin lankidetzari eutsita eta lankidetzara hori areagotuta.

Gogora institutua nazioartean hedatzeko lanak bultzada berri bat jaso behar du aldi honetan; alegia, beste urrats bat egin behar du behin betiko sendotzeko bidean.

Ikerketaren alorrean, Gogora Institutuak memoriaren arloan herri honetan garatzen diren ikerketen koodinazioa sustatzen jarraituko du, bikoiztasunak saihestuta eta sinergiak sortuta. Horretarako, ikerketa-plan bat prestatuko du urtero, arlo horretan ikerketan jarduten duten gainerako erakunde eta elkarteekin koordinaturik.

Dibulgazioaren alorrean, eremu horretako jarduketek garrantzi estrategiko berezia izango dute 2021-2024 aldirako Jarduketa Plan honetan, urteotan hedatuko eta sendotuko baita Gogora institutuaren erakusketa-politika.

Aipamen berezia merezi du Gogora institutuaren egoitzan kokatuko den erakusketa-proiektuaren garapenak eta exekuzioak. Aurreko legegintzaldian erakusketa-proiektuaren oinarri buruz akordioa lortu ondoren, orain proiektua garatu eta gauzatu behar da. Egitasmo hori modu pluralean kudeatzea izango da plan honen lehentasunezko helburuetako bat. (Ikus *Gogoraren erakusketa-proiektua definitzeko oinarriak, 2019ko ekaina.*)

Gainera, *Martxoak 3 Memoriagunea* izeneko fundazioa jarriko da abian, zeinaren helburua izango baita Gasteizen 1976ko martxoaren 3an izaniko gertaera traumatikoak oroitzeko espazio bat bultzatzea. Proiektu hori hainbat erakunderen artekoa izango da: Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Gasteizko Gotzaindegia eta, ekimen sozialaren aldetik, Martxoaren 3ko Biktimen Elkarte eta Memoria Gara elkarte.

3. Memoria historikoko proiektuen ildo estrategikoak eta helburuak

Aurreko legegintzaldian, 2017-2020 aldirako Jarduketa Planaren garapenean, Gogora institutuak ikerketa, oroitzapen-jarduketa, omenaldi eta dibulgazio-lan ugari egin ditu memoria historikoaren alorrean. Horretaz gainera, harremanak ezarri ditu Euskadiko zein kanpoko beste erakunde batzuekin, eta aurrekaririk gabeko bultzada instituzionala eman zaio Euskadiko memoria historikoa berreskuratzeari. Gogora memoria historikoaren alorreko erreferente garbi bilakatu da, baita gure mugetatik kanpo ere, hainbat ekimeni esker; esate baterako, desagertutako pertsonak bilatzeko plana (119 giza gorpuzki berreskuratu dira), Duintasunaren Kolunbarioa, DNA bankua, familiei bidalitako milaka txosten indibidualizatu sorrarazi dituzten ikerketak, Gogora institutuak sustaturiko ikerketak (horietan artean nabarmendu behar da *Euskadin Gerra Zibilean hildakoak, 1936-45*), memoria historikoko elkarreentzako dirulaguntzak, hitzaldiak, jardunaldiak eta abar.

Plan honen helburua orain artean eginiko lanarekin aurrera egitea da, koherentzia emanez eta jarraipena bermatuz, Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea onetsita.

Honako hauek dira helburu espezifikoak:

Kudeaketaren arloan, Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea onesteak kohesioa eta koherentzia emango dizkie orain arte egindako jarduketei, eta, gainera, eginkizun berriak esleituko dizkio Gogora institutuari —besteak beste, biktimen errekonozimendua eta erreparazioa bilatzea, memoria-lekuak identifikatzea eta katalogatzea, artxiboetarako irispidea, edo gizartearen partaidetza memoria historikoaren politketan—.

Ikerketaren arloan, ikerlan historikoak egiten eta koordinatzen jarraitzea, eta, hala, memoria historikoaren egia berreskuratzeko prozesu instituzionala amaitzen laguntzea. Nabarmen-tzekoa da oinarri-txostenaren bigarren fasea, 1936tik 1945era bitartean espetxeratu zituzten pertsoneri buruzkoa. Horien ostean, frankismo garaiko konfiskazioei, garbiketei eta giza esku-bideen beste urraketa larri batzuei buruzko ikerketak egiten jarraituko da. Aipamen berezia merezi dute, orobat, Gogora institutuak senideen eskariz bidaltzen dituen banakako txostenek. Eskaera hori etengabe ari da handitzen, *Euskadin Gerra Zibilean hildakoak 1936-45* izeneko errolda aurkeztu ostean.

Dibulgazioaren alorrean:

Biktimen errekonozimendua eta erreparazioa: Egiaren ezagutzan aurrera egiten den heinean, frankismoaren biktimen aitorten moralak egingo da —bai modu indibidualean, bai kolektiboki—, Euskadiko memoria historiko eta demokratikoari buruzko Legearen proiektuan jasota dagoen bezala, zeina legegintzaldi honen lehen erdian onetsiko baita, aurreikusitakoaren arabera.

Gernika 1937 Bakearen Museoa: arlo honetan Bakearen Museoaren berrikuntza ere nabarmentzen da. Gernika 1937 baliatuko da erakusketa-proiektua estatutuetan jasotako misio berrira egokitzeko eta museo hori Euskadiko bonbardaketen eta memoria historikoaren museo bihurtzeko. Lan horretarako, beharrezkoa da museoaren Patronatuan dauden hiru erakundeen esku-hartzea eta lankidetzak; alegia, Gernikako Udalarena, Bizkaiko Foru Aldundiarena eta Eusko Jaurlaritzarena.

4. Oraintsuko memoriari buruzko proiektuen ildo estrategikoak eta helburuak

4.1. Ildo estrategikoak

Oraintsuko Memoria (1960-2011) ere Gogora Institutuaren jarduketako arloetako bat da, eta beste bultzada bat izango du plan honen esparruan. Bere izaeratik, aldi historiko hori Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzaren eskumeneko politika eta estrategien objektu ere bada. Oraintsuko memoria terrorismoaren biktimei buruzko legeriak edo zio politikoko indarkeria-egoeran giza eskubideen urraketak pairatu dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateari buruzkoak barne hartutako denbora-esparru berean kokatzen da. Gainera, ETAREN adarrek eragindako terrorismoa, eskuin muturreko taldeen terrorismoa (BVE, GAL...) eta zio politikoko indarkeria protagonista izandako aldi historikoak markatzen du.

Gogorak printzipio hauek oinarri hartuko dituen memoria baten eraikuntza gidatu eta bultzatu nahi du:

- Biktimen memoria, eskubide-urraketen biktima guztiena, ETAREN terrorismoaren biktime-na, beste terrorismo batzuen biktime-na (BVE, GAL...) eta Estatuaren indarkeriaren erabilerak bidegabearen biktime-na. Gertakari, kronika, datu eta estatistika hotzetatik haratago, gure iragan hurbilenari biktimen begietatik begiratu nahi diogu. Begirada pertsonal eta gizatiar hori da, hain zuzen ere, Gogoraren memoria-politikaren bereizgarrietako bat.
- Bakearen, askatasunaren, demokraziaren eta giza eskubideen aldeko borrokaren eta konpromiso sozialaren memoria.

- Memoria irekia, inklusiboa, memorien memoria, honako hauek barne hartuko dituena: gertakari guztiak, indarkeria-adierazpen guztiak, eskubide-urraketa guztiak, ikuspegi guztiak, esperientzia guztiak, sufrimendu guztiak. Memoria ez selektiboa, pertsona guztiak barne hartuko dituena.
- Memoria kritikoa. Euskadiko azken mende erdiko memoria begirada kritiko bat izan behar da, indarkeriak eta eskubideen urraketak izandako zentraltasunagatik. Indarkeria eta eskubide-urraketak justifikatu edo legitimatuko ez dituen begirada kritikoa. Parekatzerik, konpentsaziorik eta bazterkeriarik gabeko memoria. Erresuminik, gorrotorik eta mende-urrik gabeko memoria. Kohesiorako –eta ez zatiketarako– tresna izango den memoria.
- Memoria etikoa, interpelatu egingo gaituena, ondorioak aterako dituena, ikaskuntzak eragingo dituena eta, irakurketa politiko eta demokratikoekin batera, indarkeriaren zentzugabekeriari eta giza eskubideen urraketari buruzko balorazio etikoa barne hartuko duena.
- Etorkizunera begirako memoria. Zertarako memoria? Bizikidetzarako memoria. Gogorak gogoeta sustatu behar du memoria partekatu baterako oinarriez. Izan ere, memoria izango da etorkizuneko Euskadiren zutabeetako bat, bizikidetzaren normalizatuari dagokionez. Eta bizikidetzak printzipio hauek izango ditu oinarri: indarkeriarik eza, pertsonen duintasuna, giza eskubideak defendatu eta sustatzea, pertsona guztien aintzatespena, elkarriketa eta aniztasunaren kudeaketa positiboa.

4.2. Oraintsuko memoriaren helburu espezifikoak:

Oraintsuko memoriaren aldiko proiektuen esparruan eta horiek egituratzen dituzten hiru kapituluak kontuan hartuta, hona hemen egitasmo bakoitzari dagozkion helburu espezifikoak:

Kudeaketaren alorrean: Adostasun plurala. Goian aipatutako irizpideei eta printzipioei jarraituz, Gogora institutuak 2020-2024 aldirako Gobernu Programarako akordioan agindutako zeregin berriari erantzun beharko dio:

«Terrorismo eta indarkeriako iraganaren memoria kritikoa sustatzea. Memoria kritikorekiko konpromisoa iraganeko edozein terrorismo- edo indarkeria-formaren legitimazio, konpentsazio edo minimizazio ukatuz eta orain edo etorkizunean gertakari berberak errepikatzea irmoki aurkaratuz gauzatzen da. Hala, memoria hori bizikidetzaren proiektu sozial bat partekatzeri bideratuko da eta terrorismoak eta motibazio politikoko bestelako indarkeria batzuek eragindako bidegabekeria aitortzean oinarrituko da. Konpromiso hori Gogoraren 2021-24 aldirako Jarduketa Planaren bidez gauzatu da (...). Gogora institutuak itun sozial bat garatuko du bizikidetzaren alde, zeharkakotasunez eta zentzu etikoz, zeina premisa honetan oinarrituko baita: ez zegoen, ez dago eta ez da egongo terrorismoa edo eskubideen beste edozein urraketa justifikatzeko arrazoi politikorik» (2020-2024 aldirako Gobernu Programaren 101. konpromisoa).

Beraz, Eusko Legebiltzarreko Memoriaren Ponentziaren lekukoa jaso beharko du, eta gure iragan hurbilari buruzko memoria kritikoa buruzko adostasun plural bat lortzen saiatu. Garrantzitsua ez ezik, konplexua ere izango dena eta lehentasunezko izaera duena.

Ikerketaren arloan, aldi horretako giza eskubideen urraketak argitzeko azterlanak eta ikerketak garatzea eta bultzatzea, urteko ikerketa-planen bidez.

Gainera, Gogora institutuaren ikus-entzunezko funtsa handitzen jarraituko da, Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren zuzenaritzarekin lankidetzan eta koordinazioan, eta lekuko-tza gehiago jasoko dira: biktimen senideak, bizirik atera direnak eta indarkeriaren mehatxua bizi izan zutenak. Hala, Gogora institutua sendotzeko urratsa izango da oraintsuko memoriari

buruzko ikerketak koordinatzeaz eta bultzatzeaz arduratzea. Institutuak aurreko legegintzaldian memoria historikoaren arloan egin duen lanaren moduko lana egin nahi da. Biktimen zuzeneko testigantzak eta gertakarien egia argitzea lagungarriak izan daitezke lortzeke dauden adostasun pluralak eskuratzeko bidean.

Dibulgazioaren eremuan, Gogora institutuaren dibulgazio-lana indartzea —bai gizarte-arloan, bai hezkuntza-arloan—. Horretarako lagungarriak izan litezke EITBrekin egindako hitzarmena, Gogoraren erakusketa-proiektua, eta Herenegun, Adi-adian eta tankera horretako hezkuntza-proiektuak.

EITBrekin sinatutako hitzarmena aproposa izango da ikerketen emaitzak eta indarkeria edo haren mehatxua jasan zuten pertsonen testigantzak ezagutarazteko eta zabaltzeko. Horretaz gainera, memoriaren lan pedagogikoa ikuspegi etiko eta kritikotik garatzeko aukera emango dio Gogorari.

Bestalde, biktimen testigantzak jasotzeak balio bikoitza du: alde batetik, aintzatetsi egiten du biktima bera, eta, bestetik, lekukotasunak balio pedagogiko handia hartzen du, gazteenei gure memoriaren dimentsio historikoa eta etikoa transmititzeko.

Ikerketak eta lekukotasunak —beste batzuekin batera— dibulgazio-tresna nagusia izango dira etorkizunean Gogora institutuan egongo den erakusketa-gunean, Martxoaren 3ko Memoriagunean eta Gernika 1937 Bakearen Museoa.

Hirugarren zatia
Jarduketa-programa



I. ardatza: Zeharkako proiektuak

KUDEAKETA

2. ekimenaren fitxa

Memoria-politika publikoak koordinatzea

1. Ekimenaren deskribapena

- Ekimen honen helburua da memoriaren alorreko politika publikoen koordinazioa sustatzea, eta, horretarako, sinergia eta osagarritasuna sustatzen ditu memoriaren arloko beste erakunde batzuekin, bai Euskadi barruan, bai Estatuan, bai nazioartean.
- 2021-2024 aldirako Jarduketa Plana kudeatzea eta, horretarako, Euskadiko memoria-politika guztiak koordinatzea gainerako erakundeekin, foru-aldundiekin eta udalekin.
- Espainiako Gobernuako Memoriaren Estatu Idazkaritzarekin eta gainerako autonomia-erki-degoekin koordinatzea, memoria historikoarekin zerikusia duten politikak sustatzeko eta koordinatzeko.
- Memoriaren Nazioarteko sareekiko harremanak antolatzea, memoria berreskuratzeko jardunbide egokiak eta esperientzia positiboak partekatzeko.
- Harremana Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroa Fundazioarekin eta Gasteizen duen erakusketa-espazioarekin

2. Helburuak

- Erakundeen memoria-arloko politika publikoen koordinazioa eta osagarritasuna sustatzea.
- Gogora estatuko erakundeekin eta memoriaren inguruko nazioarteko sare eta esperientziekin konektatzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Gogora institutuaren eginkizun nagusietako bat memoria-politika publikoen arloan koordinazioa, sinergiak eta lankidetzak bilatzea da. Horregatik, memoria berreskuratzeko ekimenak garatzean, gainerako erakundeekin harremanetan eta lankidetzan jarraituko da, hala nola Eusko Legebiltzarrarekin, foru-aldundiekin eta udalekin.
- Gogora institutuaren jarduketa-irizpide erabilgarrienetako izango da aurrerantzean ere beste leku batzuetan eta beste erakunde batzuen bidez garatu diren esperientziak ezagutzea, hala ikerketakoak nola zabalkundeak.
- Nazioarteko harremanak sendotzea irizpide gidaria izan behar da Gogora finkatzeko etapa honetan. Helburua da Gogora nazioartean ezagutaraztea eta beste herrialde batzuetan memoria kudeatzeko garatu diren esperientzietatik ikastea.

4. Jarduketa-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio-irizpidea
1. ekintza. 2021-2024 aldirako Jarduketa Plana aurkeztea eta onestea	2021eko lehen sei hilekoa	Proposamena ezarritako epean aurkeztea.
2. ekintza. Foru-aldundiekin etengabeko lankidetzaz izatea.	Legegintzaldi osoan	Legegintzaldian zehar ezarritako sinergia eta lankidetzaz, bereziki erakusketa eta ikerketa-proiektuak garatzen.
3. ekintza. Udalekin etengabeko lankidetzaz izatea, dirulaguntzen bidez eta memoria-ekitaldiak antolatuz.	Legegintzaldi osoan	Legegintzaldian ezartzen diren sinergia eta lankidetzaz eta gauzatzen diren proiektuen kopurua.
4. ekintza. Memoria Historikoaren Estatuko Idazkaritzarekin elkarlan jarraituan aritzea.	Legegintzaldi osoan	Legegintzaldian lorturiko sinergia eta elkarlana.
5. ekintza. Memoriaren arloko jardunbide egokiei buruzko nazioarteko topaketa antolatzen parte hartzea.	2023an	Proiektua ezarritako epean garatzea, bai eta ezartzen diren nazioarteko harremanak ere.

I. ardatza: Zeharkako proiektuak

IKERKETA

2. ekimenaren fitxa

Memoriari buruzko ikerketak eta txostenak sustatzea eta garatzea

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimen honen bidez, Euskadiko memoria historikoari eta oraintsuko memoriari buruzko ikerketak, argitalpenak eta ikus-entzunezkoak sustatu eta koordinatu nahi dira.

- Memoriari buruzko dokumentuak, artxiboak, argazkiak eta ikus-entzunezkoak jaso, gorde eta artxibatzea, bereziki biktimen familien eskutik datozenak.
- Estatuko artxibategi eta dokumentazio-zentroekin hitzarmenak egitea, elkarlanerako eta dokumentuak eskuratzeari bide emateko.
- Gure herriko memoriarekin zerikusia duten liburuak argitaratzeko eta dokumentalak prestatzeko dirulaguntzen deialdia egitea.
- Euskadiko udaletarako dirulaguntzen deialdia egitea, memoria-politika publikoak gara ditzaten.

2. Helburuak

- EAEko herritarren memoriari buruzko ahalik eta dokumentu eta artxibo gehien batzea, bereziki XX. mendeko gertakari traumatikoen biktimen ingurukoak.
- Estatu osoan memoriaren inguruan erreferentziakoak diren artxibategi eta dokumentazio-zentroekin konektatzea Gogora.
- Memoriari buruzko hausnarketa eguneratua eragingo duten ikerketa eta edizioko eta ikus-entzunezko lan berriak sustatzea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Ikerketaren arloan, Gogoraren ardatza izango dira orain arte egin den guztia bateratzeko lana egitea, batetik, eta gainerako erakunde, memoria-elkarte eta hezkuntza-esparruarekin lankidetzan aritzea, bestetik.
- Ikerketa- eta artxibatze-lanaren asmoa zabalkundea izango da; beraz, jendearen esku jarriko da Gogora institutuaren Dokumentazio Zentroan, Liburutegian eta webgunean. Zentzu horretan, nabarmentzekoa da Gerra Zibilean hildakoen datu-basea argitaratu izana Gogora institutuaren webgunean.
- Foru-aldundiekin eta tokiko memoriari buruzko ikerketa bereziki landu duten udalekin koordinatzea bilatuko da. Modu berean eta helburu berekin, harremanetan jarraituko da Euskadiko memoria-elkarteekin eta Estatu osoko artxibategi eta dokumentazio-zentroekin.

- Gogorako Zuzendaritzak urte bakoitzeko lehen sei hilekoan haren Zuzendaritza Kontseiluan ikerketa-plana aurkeztuko du, bai eta urtero diruz laguntzen diren liburuen eta ikus-entzunezkoen zerrenda ere.

4. Jarduketa-programa

Acciones	Calendario	Criterio de evaluación
1. ekintza. Gerra Zibileko Euskadiko biktimen familiarako bidalitako dokumentazio eta argazkiak jasotzea, Gogoraren datu-basea osatzeko.	Legegintzaldi osoan	Familiekin finkatzen diren harremanen joritasuna eta jasotako gordailuak.
2. ekintza. Hitzarmenak sustatzea Euskadiko eta kanpoko artxibategi eta dokumentazio-zentroekin.	2022ko bigarren sei hilekoa	Sinatzen den akordio eta hitzarmen kopurua eta joritasuna lankidetzan.
3. ekintza. Memoriari buruzko liburu eta dokumentalen dirulaguntzen deialdia.	Urte bakoitzeko lehen sei hilekoa	Diruz laguntzen den liburu eta dokumental kopurua.
4. ekintza. Memoriari buruzko ikerketen urteko plana onartzea.	Urte bakoitzeko bigarren sei hilekoa	Proiektua ezarritako epean garatzea.
5. ekintza. Udalei dirulaguntzak emateko deialdia, memoriari buruzko proiektuetarako	Urte bakoitzeko lehen sei hilekoa	Tokian-tokian gauzatuko diren ikerketa-proiektuen kopurua.

I. ardatza: Zeharkako proiektuak

DIBULGAZIOA

3. ekimenaren fitxa

Gogora institutuaren dibulgazio-lanerako baliabideak sustatzea

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimen honen bidez, Gogora institutuan jasotako edukiak zabaltzeko proiektu estrategikoak garatuko dira, bai memoria historikoari buruzkoak, bai oraintsuko memoriari buruzkoak.

- Gogoraren Dokumentazio Zentroa eta Liburutegia bultzatu eta sustatzea, Institutuak eskaintzen dituen zerbitzuak herritar guztiei ezagutarazteko. *Gerra Zibilean hildakoen datu-basea* web-orrian argitaratzeak ekarri duen kontsulta olatuari jarraipena eman nahi zaio.
- 2020-2024 aldirako Jarduketa Plan honen proiektu garrantzitsuenetako bat Gogora institutuaren erakusketa-gunea diseinatzea, gauzatzea eta irekitzea izango da. Proiektu horretarako, adostasun plurala lortu beharko da Gogoraren Zuzendaritza Kontseiluan dauden sentsibilitate politikoen artean.
- Zabalkunderako jarduketa garatzeko, jardunaldiak, hitzaldiak eta konferentziak antolatzen jarraituko da, eta, horretaz gainera, oroipen-ekitaldiak egiten ere segituko da, gure herriaren memoriarako data seinalatuetan.
- Memoriaren edukiak zabaltzeko, aldi berean, hitzarmena sinatuko da EITBrekin, memoriari buruzko edukiak sustatzeko, eta eduki horiek EITBren irrati- eta telebista-kateetan emango dira.

2. Helburuak

- Memoriaren eraikuntzan askotariko herritarrek parte hartzeko ekimenak eta espazioak sortzea; hala, Gogora erreferentziako espazioa izango da jendeari memoriaren balio zehatza eta erreala hurbiltzeko.
- XX. mendeko gertakari traumatikoen memoriaren zabalkundea sustatzea, hausnarketa kritikoa sortzeko, eta, horretarako, memoriaren potentzialtasun etiko eta hezitzailea sustatzea.
- Gogora institutuaren erakusketa-gunea garatzea, Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluak onetsitako *Gogoraren erakusketa-proiektua definitzeko oinarriak* abiapuntu harturik.
- *Martxoak 3 Memoriagunea* sustatzea, 1976ko martxoaren 3ko gertakari traumatikoak oroitzeko, Arabako Foru Aldundiaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren lankidetzarekin.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Memoria ezagutarazteko ekimenak irizpide bikoitz bati jarraikiz garatuko dira: gizarte-partaidetza bermatzea memoriaren eraikuntzan, eta sentsibilitate politikoen artean akordio zabalenari eustea eta hura sendotzea. Horrela, Gogora memoriaren politika eta jarduketa errealean erreferentzia izateko helburua bete ahalko da.

4. Jarduketa-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio-irizpidea
1. ekintza. Gogoraren Dokumentazio Zentroa eta Liburutegia ezagutarazteko kanpaina.	2021eko bigarren seihilekotik aurrera	Herritarren ezagutza-maila eta emandako zerbitzua.
2. ekintza. Erakusketa-espazioari buruzko ideia-lehiaketaren lizitazioa.	2021eko lehen seihilekoa	Proiektuaren gaineko akordioa lortzea, eta helburua ezarritako epean betetzea.
3. ekintza. Memoriarekin zerikusia duten gaiet buruzko konferentziak eta hitzaldiak.	2021eko bigarren seihilekotik aurrera	Garatutako hitzaldi eta konferentzia kopurua eta haietako partaidetza.
4. ekintza. Martxoaren 3ko Memoriagunearen Fundazioa sortzea Arabako Foru Aldundiarekin eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin batera eta biktimen partaidetzarekin.	2021eko lehen seihilekoa	Parte-hartzaile guztien artean ezartzen den sinergia eta elkarlana eta garapena eta Fundazioa eratzeko aurretiazko izapideen garapena.
5. ekintza. Martxoaren 3rako ideia-lehiaketa argitaratzea eta proiektua garatzea.	2021eko bigarren seihilekoa	Proiektua ezarritako epean garatzea.
6. ekintza. EITBrekin lankidetzat sinatzea.	2021eko bigarren seihilekoa	Proiektua ezarritako epean garatzea.
7. ekintza. Proiektua gauzatzeko lizitazioa egitea eta Gogora institutuaren erakusketa-proiektua gauzatea	2022an eta 2023an	Ezarritako epean betetzea.
8. ekintza. Gogora institutuaren erakusketa-gunea irekitzea	2023	Ezarritako epean betetzea.
9. ekintza. Martxoak 3 Memoriagunearen erakusketa-proiektuaren exekuzioa lizitatzea eta gauzatea.	2022an eta 2023an	Ezarritako epean betetzea.
10. ekintza. Martxoak 3 Memoriagunea erakusketa-gunea irekitzea	2023	Ezarritako epean betetzea.

II. ardatza: Memoria historikoari buruzko proiektuak

KUDEAKETA

4. ekimenaren fitxa

Memoria historikoaren inguruko elkarlana Euskadiko erakundeekin

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimen hau beste erakunde batzuekin koordinazioa eta elkarlana sustatzera bideratzen da, memoria historikoaren arloan. Hauexek dira jarduketa zehatzak:

- Eusko Legebiltzarrean Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legearen onarpena izapidetzea, ahalik eta adostasun handienarekin.
- Diskurtsoaren berriztapena eta Gernika 1937 Bakearen Museoko erakusketa-proiektua kudeatzea, Euskadiko Memoria Historikoaren Museoa izan dadin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Gernikako Udalarekin elkarlanean.
- Udal-eremuan proiektu zehatzak sustatzea, besteak beste: memoria-espazioak berreskuratzea eta memoriari buruzko tokiko liburuak argitaratzea, udalentsako dirulaguntzen deialdiaren bidez.

2. Helburuak

- Udalekin elkarlanean jardutea memoria historikoa berreskuratzeko proiektu zehatzetan.
- Foru-aldundiekin irizpideak bateratzea, memoria-arloko elkarten proiektuak diruz laguntzeko orduan.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Areagotu egin behar da memoria-politiken koordinazioa, bikoiztasunik eta gainjartzerik egon ez dadin, kontuan harturik orain finkatzen ari dela Gogora institutuaren proiektua eta aurreikusita dagoela Memoria Historikoaren eta Demokratikoaren Legearen onspena.
- Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundiekin adostutakoak bideratuko du, zentzu horretan, aldundiekin izan beharreko koordinazioa.
- Udalei dagokienez, Burdin Hesia zaintzeko eta balioesteko segimendu-organoa adibide egokia izan daiteke etorkizunean gara daitezkeen beste jarduketa batzuk koordinatzeko; organo horretan 33 udalerrik parte hartzen dute, Eusko Jaurlaritzaz eta foru-aldundiez gain.

4. Jarduketa-programa

Acciones	Calendario	Criterio de evaluación
1. ekintza. Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea aurkeztea eta onartzea.	Aurkezpena: 2021eko ekaina-uztaila	Proiektuaren aurkezpena ezarritako epean betetzea.
2. ekintza Gernikako erakusketa-proiektua berritzea.	2022ko bigarren seihilekoa	Proiektua aurkezteko ezarritako epeak betetzea.
3. ekintza. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatzea memoria historikoaren dirulaguntzen deialdiak.	Legegintzaldi osoan	Legegintzaldian lorturiko sinergia eta elkarlana.
4. ekintza. Burdin Hesia berreskuratzeko segimendu-organoa koordinatzea.	2021eko bigarren seihilekotik aurrera, legegintzaldi osoan	Legegintzaldian lorturiko sinergia eta elkarlana.

II. ardatza: Memoria historikoari buruzko proiektuak

IKERKETA

5. ekimenaren fitxa

Memoria historikoaren egiari ekarpena egitea eta biktimen senitartekoak artatzea

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimen honen helburua memoria historikoaren egia osatzeko prozesua amaitzen laguntzea da, baita biktimen senitartekoei arreta eta zerbitzu ematea ere. Horretarako, bost jarduketa-ildo nagusi zabalduko dira:

- Gerra Zibilean eta frankismoan izandako giza eskubideen urraketan oinarritako txostena garatzen jarraitzea.
- Gogora institutuak Gerra Zibilean desagertutakoei eta hildakoei buruzko txostenak egitea, familiartekoei hala eskatuta.
- Aranzadirekin hitzarmena formalizatzea, memoria historikoaren inguruko ikerketak garatzeko. Euskadiko desobiratzeen balantzea aurkeztu ondoren, ikerketa-proiektu berrietan eta zabalkunderako jarduketetan sakonduko da.
- Laguntza eta aholkularitza Erorien Haranean hobiratutako EAEko herritarren familiartekoei.
- Udal- eta eskualde-eremuan memoria historikoaren inguruko ikerketak eta berreskuratzeak sustatzea.

2. Helburuak

- Gerra Zibileko eta frankismoko gertakari historikoak ikertzea eta argitzea, batik bat giza eskubideen urraketan ingurukoak (bizi eskubidearen urraketak eta askatasunaz gabetzeari lotuak).
- Ahal den neurrian, Gerra Zibilaren eta errepresio frankistaren biktimen senitartekoei erantzuten saiatzea.
- Eskualde- eta udal-eremuan memoria historikoa berreskuratzen laguntzea, udal eta gizarte-erakundeen parte-hartzearekin.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Azken 18 urteotan Aranzadirekin elkarlanean desagertuak bilatzeko Euskadiko Plana amaitu ondoren eta Euskadin Gerra Zibilean hildakoak datu-basea argitaratu ostean, helburua da lankidetzaz jarraitzeaz gainera EHUrekin ere kolaborazioan aritzea, Gerra Zibilean eta frankismoan izan ziren funtsezko eskubideen beste urraketa batzuen banako kasuak ikertzeko eta Gogora institutuari txostena eskatzen dioten familiartekoen eskaerei erantzuteko, bai eta memoria historikoa ezagutarazteko ekimenak garatzeko ere.

- Bigarren fasean dago oinarrizko eskubideen urraketei buruzko oinarri-txostena, eta, hartan, askatasunaz gabetzeko zigorrak aztertuko dira, batik bat, eta, aurrerago, garbiketa-eta konfiskazio-kasuak.
- Tokiko ikerketen sustapena dela eta, elkarte eta udaletara bideratutako dirulaguntzen deialdien bidez, memoriaren espazio eta ibilbideak ikertu eta berreskuratzeko proiektuak lehenesten dituzten proiektuak sustatzen jarraituko da.

4. Jarduketa-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio-irizpidea
1. ekintza. Gerra Zibileko eta frankismoko giza eskubideen urraketan inguruko oinarri-txostenaren ikerketaren 2. fasea. Espetxea 1936-1945 bitartean.	2021ean eta 2022an	Ezarritako epeak betetzea eta kasu posible guztien dokumentazioa eskuratzea.
2. ekintza. Gerra Zibileko eta frankismoko giza eskubideen urraketan inguruko oinarri-txostenaren ikerketaren 3. fasea. Frankismoaren diktaduran konfiskazioak, arazketak eta giza eskubideen beste urraketa batzuk.	2023an eta 2024an	Ezarritako epeak betetzea eta kasu posible guztien dokumentazioa eskuratzea.
3. ekintza. Gogora institutuak Gerra Zibilean desagertutakoei eta hildakoei buruzko txostenak prestatzea, familiartekoei hala eskatuta	Legegintzaldi osoan	Egindako txosten kopurua.
4. ekintza. Laguntza eta aholkularitza ematea Erorien Haranean lurperatutako EAEko herritarren familiartekoei eta DNA batzea.	2021. eta 2022. urteetan	Desobiratze- eta identifikazio-prozesua egiteko Gogora institutuaren laguntza jaso duten familia kopurua.
5 ekintza. Memoria elkarte eta fundazioentzako dirulaguntza deialdia.	Legegintzaldi osoan	Diruz laguntzen diren proiektuen kopurua eta kalitatea.

II. ardatza: Memoria historikoari buruzko proiektuak

DIBULGAZIOA

6. ekimenaren fitxa

Memoria Historikoaren egiaren aitorpena eta zabalkundea

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimenaren xedea da Gerra Zibilean eta frankismoan izan ziren giza eskubideen urraketak eta gertakariak aitortzea eta horien berri ematea, eta honako ekintza hauetan zehaztuko da:

- Matxinatuek estrajudizialki fusilatu eta erail zituztenak aitortzeko ekitaldia egitea eta, horretarako, ahalik eta adostasun politiko handiena eta biktimen familiartekoen parte-hartzea izatea.
- Gerra Zibilean eta diktadura frankistaren lehen urteetan, espetxean hil ziren pertsona guztiak aitortzeko ekitaldia egitea.
- Euskadin toki-erakundeek eta elkarteek antolatuta egiten diren Gerra Zibileko bonbardaketetako biktimak aitortzeko ekitaldietan parte hartzea.
- Biktimen ziurtagiri indibidualizatuak ematea hala eskatzen duten familiei, Euskadiko memoria historiko eta demokratikoari buruzko Legea onartutakoan.
- Memoria historikoa hezkuntza-curriculumean sartzeko hezkuntza-proposamena garatzea, Legea onartzen denean.
- Memoriaren ibilbideak eta espazioak berreskuratzea kudeatzea eta sustatzea.
- Memoria historikoari buruzko gaikako erakusketak garatzea.
- Memoria historikoari buruzko ikerketa-argitalpenak argitaratzea.

2. Helburuak

- Gerra Zibilak eta frankismoak Euskadin eragindako biktimen aitorpen-zikloa ixtea eta, horretarako, ahanzturatik atera eta duintasuna itzultzea, pairatu zuten bidegabekeriaren aitorpena instituzionala eginez.
- Gerra Zibilaren eta frankismoaren Euskadiko historia ezagutaraztea eta irakastea, biktimen eta giza eskubideen urraketan ikuspegitik.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Askotariko erakunde, alderdi politiko eta elkarten arteko akordiotan ardaztuko dira Memoria Historikoaren egiaren aitorpen instituzionala eta biktimen ohoratzea.
- 2020-2024 Jarduketa Planaren esparruan, beste jarduketa batzuk ere garatuko dira, besteak beste, oroitzapen-ekitaldiak, ikasmateriala prestatzea eta bestelakoak. Horiek guztiek askoren adostasuna bilatzeko irizpide berari jarraituko diote.

4. Jarduketa-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio-irizpidea
1. ekintza. Matxinatuek estrajudizialki fusilatu eta exekutatu zituztenak aitortzeko ekitaldia.	2022ko lehen hiruhilekoa	Ezarritako epeak betetzea eta parte-hartzaileak askotarikoak izatea.
2. ekintza. Espetxean hil zirenak aitortzeko ekitaldia.	2022ko amaieran	Ezarritako epeak betetzea eta parte-hartzaileak askotarikoak izatea.
3. ekintza Biktimen aitorten indibidualizatuak egitea.	Euskadiko memoria historiko eta demokratikoari buruzko Legea onesten denetik aurrera	Arreta jasotzen duten familia guztiei arreta epe barruan emateko ardura.
4. ekintza. Euskadin egiten diren Gerra Zibileko bonbardaketetako biktimak aitortzeko ekitaldietan parte hartzea.	Legegintzaldi osoan	Ekitaldi kopurua eta parte-hartzaileak askotarikoak izatea.
5. ekintza. Gogora institutura informazio bila doazen familiarakoentzako arreta eta zerbitzu pertsonalizatua.	Legegintzaldi osoan	Urtero arreta jasotzen duen familia kopurua.
6. ekintza. Memoria historikoa hezkuntza-curriculumean sartzeko hezkuntza-proposamena garatzea, Legea onartzen denean.	2023-2024 ikasturtea abiaraztea	Epe barruan egitea eta abian jartzea.
7. ekintza. Memoriaren ibilbideak eta espazioak berreskuratzea kudeatu eta sustatzea, udalekin elkarlanean.	Legegintzaldi osoan	Berreskuratutako eta seinaleztatutako ibilbide kopurua.
8. ekintza. Donostian desobiratzeei buruzko erakusketa egitea.	2021eko azken hiruhilekoa	Erakusketa eta gizarte-partaidetza epe barruan egitea.
9. ekintza. Duintasunaren Kolunbario berria Urduñan	2021ean	Obra zibila epe barruan egitea.

III. ardatza: Oraintsuko memoriari buruzko proiektuak

KUDEAKETA

7. ekimenaren fitxa

Adostasun plural bat sustatzea eta oraintsuko memoriaren inguruan elkarlanean aritzea Euskadiko erakundeekin

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimen honek bi norabide ditu: alde batetik, oraintsuko memoriari buruzko adostasun plural bat sustatu nahi du Gogora Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluaren barruan, eta, bestetik, beste erakunde batzuekiko koordinazioa eta lankidetzak bultzatuko ditu oraintsuko memoriaren arloan. Hauexek dira jarduketak zehatzak:

- Gogora Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluan oraintsuko memoriari buruzko adostasun plurala bultzatzea.
- Tokiko jarduketak sustatzea eta bultzatzea, udalekin elkarlanean, azaroaren 10aren inguruan, Euskadiko Memoriaren Egunaren inguruan.
- Udalerri bakoitzeko oraintsuko memoriarekin zerikusia duten beste oroitzapen-ekitaldi batzuk sustatzea.

2. Helburuak

- Gure oraintsuko Memoriaren printzipioei eta oinarriari buruzko akordio bat sustatzea, aniztasunean oinarritutako bizikidetzarako ekarpen esanguratsu gisa
- Memoriaren Egunaren ospakizuna finkatzea, eta ahalik eta adostasun handiena lortzea.
- Tokian-tokian Euskadiko oraintsuko memoriaren mugarrak oroitzea, eta, horrela, duela 50 urte gertatu ziren gertakari traumatikoak oroitzeko ekitaldiak nabarmentzea.
- Euskadiko oraintsuko memoriaren une garrantzitsuak oroitzeko ekitaldiak sustatzea estatuan.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Jarduketa Plan honen bigarren zatiko 4.1 puntuan daude deskribatuta adostasun plurala bilatzeko irizpideak.
- Memoria Eguna dela eta, erronka da ospakizuna bera eta horri loturiko jarduketak finkatzea, gertatu denaren inguruko hausnarketa kolektiboa eragiteko.
- Oraintsuko memoriarekin zerikusia duten beste udal-jarduketa batzuen garapena dela eta, Gogora saiaturiko da familiak eta udalak ados jartzen gertakarien 50. urteurrenarekin lotuta dauden ekitaldietan, orain arte egin den bezala. Gainera, laguntza emango du eta aholkularitza eta dokumentu-baliabideak eskainiko ditu jarduketak egiteko. Hori horrela,

ahalegina egingo da ekitaldion parte-hartzaileak askotarikoak izan daitezzen eta biktimen familiek parte hartu dezaten.

- Memoriaren Egunari dagokionez, oroitzapena bera eta gure oraintsuko memorian gertatu denaren hausnarketa kolektiboa egitera bultzatzen duten jardueren garapena sendotzea da erronka.
- Oraintsuko Memoriarekin lotutako beste udal-jarduera batzuen garapenari dagokionez, Gogora Institutua familien eta udalen arteko akordioa lortzen saiatuko da gertakarien 50. urteurrenarekin lotutako ekitaldietan, orain arte egin den bezala. Gainera, laguntza emango die eta aholkularitza eta baliabide dokumentalak eskainiko dizkie hainbat jarduera garatzeko, betiere ekitaldi horiek parte-hartze plurala izan dezaten eta biktimen familien parte-hartzea izan dezaten saiatuz.

4. Jarduketa-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio-irizpidea
1. ekintza. Terrorismoaren eta indarkeriaren inguruko memoria kritikoari buruzko oinarritzko akordio bat lortzen saiatzea.	2021-2022 bitartean	Gogora institutuaren Zuzendaritza Kontseiluan ordezkaturata dauden sentsibilitate politikoen artean lorturiko adostasun-maila.
2. ekintza. Harremanetan jarraitzea Eusko Legebiltzarrekin, foru-aldundiekin, EUDELekin eta udalekin, urtero Memoriaren Eguna ospatzeko.	Legegintzaldi osoan	Memoriaren Egunaren ospakizunak ez ezik, elkarrizketa eta hausnarketa sortzeko antolatzen diren ekitaldiak ere finkatzea.
3. ekintza. Tokian-tokian Euskadiko oraintsuko memoriaren mugarrak oroitzeta, eta, horrela, duela 50 urte gertatu ziren gertakari traumatikoak oroitzeko ekitaldiak nabarmentzea.	Legegintzaldi osoan	Ekitaldiak egitea familiekin eta tokiko erakundeekin ados, eta parte-hartzaileak askotarikoak izatea.
4. ekintza Nazio-mailan oraintsuko memoriari buruzko ekimen sektorialen garapena sustatzea.	Legegintzaldi osoan	Arreta jasotzen duten familia guztiei arreta epe barruan emateko ardura.
Acción 5. AMehatxatutako zinegotzien inguruko ekitaldia.	2022ko lehen sei hilekoa	Ekitaldia aurreikusitako epeetan egitea eta parte-hartzaileak askotarikoak izatea.
5. ekintza Konferentziak eta hitzaldiak, Euskadin azken hamarkadetan izan diren giza eskubideen urratzeen inguruan, udalekin elkarlanean.	Legegintzaldi osoan	Ekitaldi kopurua eta parte-hartzaileak askotarikoak izatea.

III. ardatza: Oraitsuko memoriari buruzko proiektuak

IKERKETA

8. ekimenaren fitxa

Oraitsuko memoriari buruzko ikerketak egitea eta ikus-entzunezko funtsa areagotzea

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimen honen bidez, oraintsuko memoriari buruzko ikerketa sustatu nahi da, Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzarekin batera, eta arreta berezia jarri nahi da Gogora institutuaren ikus-entzunezko funtsaren garapenean, bai eta gaikako eta tokiko azterlanetan ere.

- Era guztietako terrorismoaren biktimen lekukotzen ikus-entzunezko funtsa handitzea, legez kanpoko errepresioaren biktimena, bai eta beste kolektibo eta herritar batzuen ere.
- Tokiko ikerketak sustatu eta bultzatzea, eta, horretarako, *Giza Eskubideen eta Oraitsuko Memoriaren Udal Txostenak prestatzeko oinarriak eta irizpideak (1960-1978)* proposamena abiapuntu hartzea.
- Oraitsuko memoriarekin zerikusia duten gaien ikerketak sustatzea, horietan gehiago sakontzeko.

2. Helburuak

- Gure oraintsuko memoriaren memoria bizia jasotzea, bereziki protagonisten beraien lekukotzen bitartez.
- Eskualde- eta udal-eremuan memoria berreskuratzen laguntzea, udal eta gizarte-erakundeen parte-hartzearekin.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Gogora Institutuak terrorismoaren eta indarkeriaren biktimek emaniko lekukotzen ikus-entzunezkoen funtsa du, eta 250 testigantza baino gehiago daude hartan jasota. Lekukotza horiek lehendabizi Bakerako eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak bildu zituen, eta, ondoren, Gogorak bildu ditu: biktima erailen familiartekoen lekukotzak, mehatxatuen eta zaurituen lekukotzak... Guztiak ere dibulgazio- eta pedagogia-xedeekin bildu dira; erakusketak antolatuko dira edo gaia DBHko eta Batxilergoko eskola-curriculumean landuko da.
- Ikuspegi inklusiboa aintzat harturik egingo dira ikerketa tematikoak, eta modu integrean helduko diete aldi honetan gertatu diren giza eskubideen urraketei.
- Lekukotzak jasotzeaz gain, ikus-entzunezko funtsa handitzen jarraituko du Gogorak, eta, horretarako, diruz lagunduko ditu gure herrialdeko gertakari traumatikoen memoria biltzen duten dokumentalak.

- Tokiko ikerketen sustapena dela eta, luzatu egingo da udalentsako deialdiaren epea, eta, horrela, memoria historikoari buruzko ikerketez gainera, oraintsuagokoak diren tokiko gertakariei buruzkoek ere jaso ahal izango dute dirulaguntza.

4. Jarduketa-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio-irizpidea
1. ekintza. Era guztietako terrorismoaren biktimen lekukotzen ikus-entzunezko funtsa handitzea, legez kanpoko errepresioaren biktimena, bai eta beste kolektibo eta herritar batzuen ere.	Legegintzaldi osoan	Lekukotzak ugari eta askotarikoak izatea.
2. ekintza. Tokiko ikerketak sustatzea eta bultzatzea, eta, horretarako, <i>Giza Eskubideen eta Oraintsuko Memoriaren Udal Txostenak prestatzeko oinarriak eta irizpideak (1960-1978)</i> proposamena abiapuntu hartzea.	Legegintzaldi osoan	Tokiko ikerketen kopurua eta tokian-tokian eragiten duten adostasun-maila.
3. ekintza. Oraintsuko memoriarekin zerikusia duten gaien ikerketak sustatzea, horietan gehiago sakontzeko.	2021eko bigarren sei hilekotik aurrera	Ikerketa kopurua.

III. ardatza: Oraintsuko memoriari buruzko proiektuak

DIBULGAZIOA

9. ekimenaren fitxa

Oraintsuko memoriaren gizarte- eta hezkuntza-transmisioa

1. Ekimenaren deskribapena

Ekimen honen bidez, azken hamarkadetan Euskadin gertatu denaren dibulgazio- eta pedagogia-proiektuak garatzen dira, ikuspegi kritikotik eta hezkuntza-ikuspegitik. Honako hauek dira ekimen zehatzak:

- Biktimen lekukotzen entzute aktiboko *Adi-adian* proiektuari jarraipena ematea DBHko 4. mailan eta Batxilergoan, Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasun zuzendaritzarekin batera.
- Oraintsuko memoria gutxika sartzea hezkuntza-curriculumean.
- Biktimen eta gizartearen artean hitzaldi, konferentzia eta topaketekin jarraitzea, memoriaren artean elkarrizketa-espazioak sortzeko.
- Biktimen eta herritarren lekukotzen erakusketak antolatzea, bai Gogoraren egoitzan, bai beste leku batzuetan, betiere Euskadiko udalekin elkarlanean.

2. Helburuak

- Gure herrialdeko oraintsuko historia markatu duten gertakari traumatikoen memoria partekatzea, iraganaren ikuspegi kritikoa sortu eta bakearen kultura, giza eskubideak eta aniztasunarekiko errespetua sendotzeko. Bereziki, hezkuntzaren eremuan.
- Oraintsuko gure iraganaren memoria bizia ezagutzera ematea, bereziki protagonisten beraien lekukotzen bitartez.
- Eskualde- eta udal-eremuan oraintsuko memoria berreskuratzen laguntzea, udal eta gizarte-erakundeen parte-hartzearekin.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

- Ikastetxeetan «Herenegun» proposamena ezartzeko, 2021-22 ikasturtean esperientzia pilotua egitea aurreikusten da hamar zentrotan. Aurretik, hautatutako ikastetxeek eta irakasleek prestakuntza jardunaldi batean parte hartuko dute, gaian aditu diren zenbaitekin. Gainera, azken urteotan *Adi-adian* esperientziak ekarri duena hartuko da kontuan; biktimen lekukotzak Euskadiko 15.000 ikasle baino gehiagori eraman dizkie.
- *Adi-adian* esperientzia Gogoraren orrian eskuragarri dagoen plataforma birtualean jasotzen diren lekukotza grabatuen bidez garatuko da gehienbat —bereziki hezkuntza-eremurako diseinatu da—, baina jarraituko da zuzeneko lekukotza eskaintzen, hala eskatzen duten zentroetarako.

- Hezkuntza-eremurako aurreikusitako jarduketa guztiak Hezkuntza Sailarekin bat etorritz garatuko dira, eta Gizalegez Akordioa izenpetu zutenekin eta hezkuntza-eragileekin koordinatuta.
- Lekukotzen erakusketak direla eta, batik bat Gogoraren erakusketa-espazioan egingo dira, eta, bertan, espazioaren zati handi bat hartuko dute.

4. Jarduketa-programa

Ekintzak	Egutegia	Ebaluazio-irizpidea
1. ekintza. Biktimen lekukotzen entzute aktiboko Adi-adian programa garatzea DBHko 4. mailan, Batxilergoan eta unibertsitateetan.	Legegintzaldi osoan	Programako lekukotzen, ikastetxe eta ikasle parte-hartzaileen kopurua.
2. ekintza. Hala badagokio, «Herenegun» proposamen didaktikoaren esperientzia pilotua egitea.	2021-2022 ikasturtea	Hezkuntza-eremuan programa ezartzea.
3. ekintza. Ikastetxeetako programazioan oraintsuko memoria ezartzea, pixkanaka.	Legegintzaldi osoan	Ikerketa kopurua.
4. ekintza. Oraintsuko Memoriako gai jakin bati buruzko urteko jardunaldiak.	Urtero, 2022. urtetik aurrera	Jardunaldiak egitea eta parte-hartzaileak askotarikoak izatea.
5. ekintza. Aldi baterako erakusketak egingo dira harik eta Gogora institutuaren erakusketa iraunkorra martxan ipini eta ireki arte.	Legegintzaldi osoan	Eginiko erakusketen kopurua eta eragina.

IV. ardatza: Proiektu operatiboak

ANTOLAKETA ETA AURREKONTUAK

10. ekimenaren fitxa

Antolaketa: koordinazioa, segimendua eta aurrekontuak

1. Ekimenaren deskribapena

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren (Gogora) Zuzendaritzari dagokio plan hori antolatzea, koordinatzea eta haren jarraipena egitea. Zuzendaritza Kontseiluak onetsiko ditu Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren jarduketa-planak, proiektu nagusiak eta urteko aurrekontuak. Era berean, memoriaren politika publikoak koordinatuko ditu organo horretan ordezkaturik dauden erakundeekin.

Horretaz gainera, memoriaren eta giza eskubideen arloan lan egiten duten elkarteekiko informazio- eta lankidetzadynamika iraunkorrari eutsiko zaio.

2. Helburuak

- Ahalik eta ondoen kudeatzea Gogora institutuaren 2021-2024 aldirako Jarduketa Plana.
- Plan honen kudeaketa adostasun sozial, politiko eta instituzional zabalenera oinarritu dadin saiatzea.
- Jarduketa Plan honetan jasotzen diren proiektuak garatzean, erakundeen eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketa- eta lankidetzadynamikei eustea.

3. Ezaugarriak eta/edo irizpideak

Jarduketa Plan hau lan-proposamen ireki, dinamiko eta malgua da, gure errealitatearen konplexutasuna eta beharrezko adostasuna bideratzeko pentsatua. Legebiltzarreko taldeen, beste erakunde batzuen eta gizarte-eragileen ekarpenak jasotzeko irekita egotea. Lankidetzadynamia horretan oinarriturik, hona hemen irizpide espezifikoak:

- Zuzendaritza Kontseilua urtean bitan elkartuko da gutxienez. Planaren etengabeko jarraipena egingo du, eta memoriari buruzko politika publikoak koordinatuko ditu gainerako erakundeekin.
- Harreman joria eta iraunkorra izango du gizarte-eragileekin.

4. Jarduketa-programa

Ekintzak	Egutegia
<p>1. ekintza. Gogora institutuaren 2021-2024 aldirako Jarduketa Plana aurkeztea eta, egokitzat joz gero, onestea.</p>	<p>2021eko lehen seihilekoa</p>
<p>2. ekintza. 2021-2024 aldirako Jarduketa Plana aurkeztea memoriaren eta giza eskubideen alorrean lan egiten duten gizarte-eragileei.</p>	<p>2021eko bigarren seihilekoa</p>
<p>3. ekintza. Zuzendaritza Kontseiluak 2021-2024 aldirako Jarduketa Planaren segimendua egitea.</p>	<p>Legegintzaldi osoan</p>